

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN ESPARRUAN ARAU-HAUSTEEN BERRI EMATEKO ETA INFORMATZAILEAK BABESTEKO BARNE-SISTEMAREN URTEKO MEMORIA. 2025. URTEA

1. SISTEMAREN ARAUTZEA

EUROPAKO PARLAMENTUAREN eta KONTSEILUAREN 2019ko urriaren 23ko (EB) 2019/1937 ZUZENTARAUA Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa da, eta Espainiako ordenamendu juridikora transponitu zen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen bidez (Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeari eta ustelkeriaren aurka borrokatzeari buruzko Legea; aurrerantzean, Legea). Zuzentarau horren indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu zen, zeina arautzen baita sistema hori sortu eta arautzeari buruzko ekainaren 13ko 89/2023 Dekretuaren bidez (aurrerantzean, Dekretua).

Dekretu horren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, urtero egin behar da Sistemaren jarduera-memoria bat urteko lehen lauhilekoan, Eusko Jaurlaritzara bidali behar da eta Gardenan argitaratu.

2023ko bukaeran eta 2024an Sistemaren jardueri hasiera eman zitzaien, giza baliabide batzuekin eta behar diren aplikazio informatikoen hornidura burutzen, eta holan Sistemak jasotako lehen 28 gaiak kudeatzen hasi zen.

Jarraian, [BiSen atarirako esteka](#) duzue.

2025ean, aurreko urtean ireki ziren beste erakundekiko harremanak mantentze eta sakontzea helburua zen, besteak beste, Fiskaltzarekin, Lehiaren Euskal Agintaritzarekin, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoarekin, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearekin, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformarekin, IVAPekin eta Osakidetzarekin, Next Generation Postontziarekin eta Europako Funtsekin, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin. Bide batez, Sistema ezagutarazteko bilerak eta prestakuntza-jardunaldiak antolatu ziren. Horrekin batera, harremanetarako talde bat sortu zen autonomia-erkidegoetako edo udal handietako barne-kanal publikoak parte izanda, guztientzako interesgarria diren doktrina eta jardunbide egokiak truke-foro gisa. Era berean, sailtako titularrekin aurkezpen- eta azalpen-saio labor bat egin zen. Azkenik, Sistema Gobernu Irekiaren Mundu Kongresuan bertan egon zen, Gasteizen, urriaren 6tik 10era.

Gainera, Kudeaketa eta Ikerketako bi arduradun-lanpostuak bete dira, eta gaur egun Sistemaren Bulegoa osatzen duten 5 pertsonako taldea osatu da.

2025ean, halaber, beharrezkoak diren modulu informatikoak hobetu ziren, hau da, informazioak ikertzeko, sailtako titularrekin komunikatzeko, espedienteak artxibatzeko eta ixteko, alertak egiteko, erabilera-eskuliburuak egiteko eta abar. EJI Eren lankidetzarekin, espediente elektronikoa osoa biltzeko helburu duen aplikazio berri bat garatzeko lanak hasi ziren, jasotzen den informazioa eta ikerketaren emaitzak biltzeko helburua izanda, amaitu arte. Horren ondorioz, aplikazio berria martxan egoteko, tresna guztiekin, hogeitaz bidera baino gehiago egin behar izan dira.


Urtea amaitzean, hala ere, erabiltzen ari diren administratibo tresnak mantendu dira. Jarraian, tresna horien [informazio-saioaren edukirako esteka](#) duzue (esteka eta bideoaren gezia sakatu).

2. DATU ESTATISTIKOAK


2025. urtea amaituta, eta Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera: «Arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunak urtero memoria bat egingo du egindako jarduerari buruz, eta Eusko Jaurlaritzari bidaliko dio urteko lehen lauhilekoan zehar, eta haren gardentasun-atarian (Gardena) argitaratuko da».

Horregatik, xedapen horrekin bat etorriz, eta 2/2023 Legearen hirugarren xedapen gehigarriak Administrazio Agintaritzaren Independentearen urteko memoriarako ezarritakoaren antzeko edukiarekin – zeinak, aldi berean, 2019/1937 Zuzentarauaren 27. artikuluan zehaztutakoari erantzuten baitio – eta Europako Batzordeari bidali beharreko beharrezko informazioarekin, honako datu hauek adierazten ditugu:

- Jasotako informazioak: 51
- Informazio anonimoen kopurua eta ehunekoa: 32, ia % 63




- Onartutako informazioen kopurua: 25 informazio onartu dira, beste 25 (2024ko 1) ez dira onartu, eta urtea amaitzean, informazio bi "aurretzeko balorazio" egoeran zeuden, oraindik onartu edo ez onartu gabe.




- Onartzen ez diren informazioetan (Legearen eta Dekretuaren eremu funtzional, pertsonal edo materialean sartzen ez direlako), informatzaileari aukera bideragarriren bat ematen saiatzen da bere kexa, ondoeza edo interes partikularra helaraz dezan. Ildo horretan, 2/2023 Legeak eskatzen duen kanpo-kanalik oraindik ez dagoenez, ezin izan da horretara jotzeko aukera eskaini, Dekretuak proposatzen duen bezala.

- Onartutako informazioetatik 23 (% 92) barruan ikertu dira, eta horietatik 3 (% 14) Fiskaltzari bidali zaizkio ikerketa horren ondoren. 2 (% 8) zuzenean bidali dira, ikerketarik gabe.



- Fiskaltzara joan ez ziren informazio ikertuetatik, 2025ean 17 amaitu ziren. Arau-hausteen ondoriozko amaiera-idazkia egitea nahitaezkoa izan zenean, hiru hilabete baino gutxiagoan igorri zen. Sistemak hiru hilabeteko epea luzatzeko ahalmena bi kasutan erabili zuen. Bata arau-hausterik gabe amaitu zen, eta bestea Fiskaltzara bidalitakoena izan zen.







- **Onartutako** informazioen xede izan diren eremuei dagokienez, hauek dira azpimarratzekoak, Zuzentarauaren Eranskinak markatzen dituen artetik:
 - Kontratazio publikoa
 - Osasun publikoa (Administrazioko egoitzetan erretzea)


Eta 2/2023 Legeari edo Espainiako gainerako ordenamendu juridikoari dagokionez:

- Arau-hauste penal edo administratibo larriak edo oso larriak, besteak beste, ordenamendu juridikoaren ez-betetze oso larriak direnak (nahitaezko izapideak edo aginduak behin eta berriz urratuz), bateraezintasun-araubidea ez betetzearen direnak, arau-hausteak edo delituak egiteko tolerantzia, eginkizunak betetzean arduragabekeriaz jokatzeta, dokumentazioa edo informazioa behar ez bezala erabiltzeta, edo dokumentuak faltsutzeta.



- 4 kasutan gertatu dira arau-hauste larriak eta oso larriak (gai berean arau-hauste bat baino gehiago gerta daitekeelako); beste 2 kasuetan, aldiz, arau hauste oso larria batean eta bestean arau hauste larria soilik.







- Lehen eta bigarren “instantziako” informazio-eskaerei jasotako erantzunak dagokienez, erdiak dekretuak ezarritako epetik kanpo bidali direla (7 egun, 13. artikulua), nahiz eta kasu jakin batzuetan epe hori luzatu egin den, errekeritutako pertsonek eskatuta. Dekretuak ezarritako prozedura berezia denez, eztabaidagarria da APELen 32. Gainera, ikertutako gertaeren garrantzia dela eta, dekretuaren epeak errespetatu behar dira, administrazioak horien aurrean duen erreakzio eraginkor eta efizientea babesteko. Beraz, eskatutako informazioa ahalik eta azkarren bidali behar da.

Sistemak prebentzio-, zuzenketa- eta arazte-neurriekin hartu behar duen txostenaren emateko hilabete bateko epeari dagokionez, kontutan izan behar da ez dela beharrezkoa neurri horien azken emaitza ezagutzea. Hartuko diren neurrien hurbilketa besterik ez da.

Sistemaren ondorioen idazkietan xeheki jasotzen dira informatzailearen eta pertsona errekeritutakoen ekarpenak, ikerketan gertatutakoa eta atera daitezkeen ondorioak, eta hortik abiatuta saileko titularrak edo berak agintzen duenak abian jarri behar dituen neurriak (diziplina- edo zehapen-espeditenteak, egintzak deuseztatzea, kontratuak suntsiaraztea, prebentzio-neurri zehatzak eta abar) eta haien ondorioak hasitakotzat soilik adierazi behar dira, hasierako egoeran.



- Bestalde, kasu batean hartu da diziplina-neurria, eta bitan neurri zuzentzaile bat, gainerako kasuetan prebentzio-neurriak hartu dira. Bestalde, espeditente bat neurriak jasotzeko geratu zen urtea amaitzean.



- Amaitzeko, urtean zehar hobetzeko aukerak hauteman dira Sistema hau arautzen duen araudian, 2/2023 Legearen eta Zuzentarauaren testuinguruan esleituta dituen funtzioei erantzun egokiagoa emateko. Horregatik, prestaketa-lan batzuetan jaso dira.